



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Mugikortasuneko Kontseilu Sektoriala – Bigarren bilera

Consejo Sectorial de Movilidad – Sesión Dos

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2016ko ekainaren 15a/ 15 de junio de 2016 Prensa Sala / Sala de Prensa 18:00etan / A las 18:00 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	20:40etan / A las 20:40 horas

GAI-ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

1. Aurreko bileraren akta irakurri eta, hala bada, onartu.	1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión anterior.
2. DSS 2050 Klima estrategia.	2. Estrategia Klima DSS 2050.
3. Mugikortasunean aparkalekuei buruzko politikak duen eragina.	3. Influencia de la política de aparcamiento en la Movilidad.
4. Galde-eskeak.	4. Ruegos y preguntas

BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Pilar Arana (EAJ-PNV) Mugikortasun eta Garraioko Zinegotzi Ordezkaria Concejala Delegada de Movilidad y Transporte	
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	1. PP 2. PSE-EE 3. EH BILDU	1. José María Murguiondo 2. Duñike Arrizabalaga 3. Axier Jaka
KONTSEILUKO BOKALAK VOCALES DEL CONSEJO	1. "LANTXABE" Auzo Elkartea / Asoc. Vecinal LANTXABE 2. Asociación Radio Taxi Donosti 3. BEGIRIS ELKARTEA 4. ELKARTU 5. ELKARTU 6. Gipuzkoako. Merk. Fed./Fed. Merc. Gipuzkoa. 7. KALAPIE Hiriko Txirrindularien Elkartea 8. HELDUEN HITZA 9. HELDUEN HITZA 10. Donostiako Tranbia Konpainia / CTSS 11. Donostiako Tranbia Konpainia / CTSS 12. Cristina Enea Fundazioa / Fundación Cristina Enea 13. 3. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº3	1. Baltasar de la Hera 2. Joxean Loza Calleja 3. Zuriñe de Anzola 4. Raquel Barroso 5. Mikel Malkorra 6. Jose Luis Erviti 7. Giuliano Mezzacasa 8. Izaskun Mendikute 9. J.M. Susperregi 10. Javier Vallejo 11. Igor Gonzalez 12. Manu Gonzalez 13. Juan Manuel Dublang
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA		

UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Mugikortasun Saileko Zuzendaria / Director del Departamento de Movilidad	Angel Querejeta
	Kontseiluaren Idazkaritza. Mugikortasuneko Administrazio Ataleko burua / Secretaría del Consejo. Jefa de Sección Administrativa de Movilidad	Josefa Estrella
	Aparkaleku Atalaren Burua /Jefe de Sección de Aparcamientos	Jose Ramón Ordoñez
	Ingurumen Saileko Zuzendaria /Director de Medio Ambiente	Josu Benaito
AHOLKULARITZA TEKNIKOAK ASESORIA TÉCNICA	LEBER enpresako teknikaria /Técnico de la empresa LEBER	Josu Ramírez
	Haizea Ikerketa S.L	Maidier Etxaide
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	13 MKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Mugikortasuneko Zinegotzia, Kontseiluko Idazkaria, 3 udal ordezkari tekniko (Mugikortasun Zuzendaria, Aparkaleku Atalaren Burua eta Ingurumen Zuzendaria), aparkalekuen gairako aholkularitza teknikoko pertsona 1 eta kontseiluko laguntza teknikoko ordezkari 1.	
	Emakumezkoak / Mujeres = 3 Gizonezkoak / Hombres = 10	
	13 personas integrantes del CSM, además de la Concejala Delegada de Movilidad, la Secretaria del Consejo, 3 representantes del cuerpo técnico municipal (el Director de Movilidad, el Jefe de Sección de Aparcamientos y el Director de Medio Ambiente), 1 persona de asistencia técnica en materia de aparcamientos y 1 persona de la asistencia técnica del Consejo.	
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	Mugikortasunerako Zuzendaritza – Dirección de Movilidad: Urdaneta 13, 3º / 943 481380 / mugikortasuna@donostia.eus	

SAIOAREN BILAKAERA: DESARROLLO DE LA SESIÓN:

Gai zerrendako puntuei hasiera eman aurretik, Idazkaritzak jakinarazten du Euskara Zerbitzuak kontseiluetan euskara erabiltzeko protokoloa onartu duenez entzungailuak daudela eskura euskaraz egiten diren mintzaldien bat bateko itzulpena entzuteko.

Lehendakariak gai zerrendaren berri eman du eta saio honetan aparkaleku kontuetan aditua den pertsona bat eta udal teknikari bat laguntzaile gisa egongo direla gehitu du. Adituak emango dituen azalpenek hausnarketa eta ekarpenak egiteko balio izango du. Ekarpenak, Sailaren iritziarekin batera, hurrengo Kontseiluan aurkeztuko den txosten batean jasoko dira.

1. Aurreko bileraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartu.

Kalapieko ordezkariak, aktan jasotako Miren Diaz hiritar norbanakoaren "Kalapieko kideek bera harrapatzeko saioak egin zituztenaren" inguruko adierazpenei dagokienean, aipatutako harrapatze saiorik gertatu ez zela aktan jaso dadila berariaz eskatzen du.

Cristina Eneako ordezkariak esan du jada aurreko saioan salaketa hori onartzen ez zuela adierazi zuela eta are eta larriagoa iruditzen zaiola adierazpen horiek pluralean daudelako. Salaketa hori onartezina da denuntzia batean oinarritzen ez bada eta salaketa mantendu nahi badu denuntzia egin dezala irmoki adierazi dio Miren Diaz.

Akta onartu da.

2. DSS 2050 Klima estrategia.

Ingurumen Saileko Zuzendariak klima aldatetaren arazoaren inguruko azalpenak eskaini ditu eta bere Saila Estrategiaren esparruan burutzen ari den partaidetza prozesuaren une garrantzitsuak adierazi ditu. Ekarpenak jasotzeko sortu diren bideen berri eman du eta, horrez gain, bilerara etorritakoei prozesuan aktiboki parte hartzeko gonbita luzatu die. Bere mintzaldia amaitzeko, lehen faseko hausnarketa guztiak datorren uztailearen hasieran eskainiko direla webean eta prozesuak datorren udazkenean jarraipena izango duela esan du.

Etorritakoen galderei erantzunez, Ingurumen Zuzendariak hiriko industriaren CO₂ emisioen murrizketaren inguruko konpromisoekin eta energia berriztagarrien iturrien erabilerarekin zerikusia duten kontuak argitu ditu, azken arlo honetan proposamenetara irekita dagoela erantsiz. Bestalde, mareak mailaz igotzen ari direla jada egitate bat dela azaldu du eta honek eragiten duen arazo handiena kosta lerroaren defentsa ez ezik saneamendu sistema osoan izango duen eragina izango dela erantsi du. Arazo honen konponbide bila dabilta Añarbeko Urekin

Previo a dar inicio a los puntos del orden del día, la Secretaría explica que dado que el Servicio de Euskara ha aprobado el protocolo de empleo del euskara en los consejos se cuenta con traducción simultánea de las intervenciones en euskara, para lo cual se dispone de auriculares

La presidenta da cuenta del orden del día añadiendo que en esta sesión se va a contar con la presencia de un experto externo en materia de aparcamientos y de un técnico del ayuntamiento. La exposición servirá para meditar y realizar aportaciones que serán recogidas, junto con la opinión del Departamento, en un documento que se presentará en el próximo Consejo.

1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión anterior.

El representante de Kalapie, en relación a la declaración recogida en acta que realizó la representante ciudadana Miren Diaz sobre "intentos de atropello a su persona por parte de miembros de Kalapie", desea que se recoja en el acta como anotación expresa que no hubo tal intento de atropello.

El representante de Cristina Enea expresa que ya en la sesión anterior había manifestado que no aceptaba dicha acusación y que la considera si cabe más grave por estar expresada en plural. Añade que esa acusación no se puede aceptar si no está asentada sobre una denuncia y conmina a Miren Diaz que de mantener la acusación proceda a realizar dicha denuncia.

Se aprueba el acta.

2. Estrategia Klima DSS 2050.

El director del Departamento de Medio Ambiente realiza una exposición sobre la problemática del cambio climático y explica los hitos del proceso participativo que su Departamento está llevando a cabo en el marco la Estrategia. Explica los canales que se han implementado para la recogida de aportaciones y anima a la asistencia a tomar activamente parte en el proceso. Finaliza la disertación explicando que a principios de julio se ofrecerán en la web todas las reflexiones realizadas en esta primera fase, la cual tendrá continuidad el próximo otoño.

Ante distintas pregunta planteadas por los asistentes, el Director de Medio Ambiente aclara cuestiones relacionadas con los compromisos de reducción de emisiones de CO₂ de la industria de la ciudad y el empleo de las distintas fuentes de energía renovable, materia en la cual está abiertos a propuestas. Explica por otro lado, que ya es un hecho la subida del nivel de mareas y que

batera, saneamendu sistema etorkizunean ere operatiboa izaten jarrai dezan. Hiria batez ere paduren gainean eraikita dagoenez, klima aldaketaren eragina hirian itsasoak etorkizunean erdietsiko duen mailaren arabera izango da. 2100 urtean 0,5 m inguru igoko dela uste da.

Ingurumen Zuzendariak klima aldaketaren aurkako borrokan nahiz berekiko egokitzapenean garatzen ari diren jardueren berri eman du ondoren. Besteak beste, Ekonomia Zirkularraren kontzeptuari ekiten ari zaio, eraispen eta eraikuntza hondakinei, batez ere. Lehen, hondakin hauek beren osoan zabortegira joaten ziren eta gaur egun, berriz, eraikuntzaren katean atzera bueltan sartzen ari dira. Bestalde, azken urteetan hiriko puntu desberdinetan ekaitz tangen eraikitzearen gisako ekintzak burutu dira, muturreko gertaeren aurreko prebentzio gisa, hauek etorkizunean larritu egingo direla uste baita. Izan ere, Azti-Tecnaliarekin lan ildo bat zabalik dago, erakunde hau Klima Aldaketaren Egokitzapen Plana garatzen ari baita muturreko gertaerak zein neurritan okerragotzen ari diren analizatzeko helburuz.

Egungo mugikortasun ereduak klima aldaketan duen eraginari dagokionean, Merkatarien Federazioko ordezkariak AHTaren garapenak, garraio publikoaren gisako beste neurri batzuekin batera emisioen murrizketa handia ekarriko duela iritzi du. Ingurumen Zuzendariak oso zaila ikusten du erregai fosileko ibilgailuak elektrikoekin guztiz ordezkatzearaino iristea baliabide kontsumo ikaragarria ekarriko baitu honek eta, beraz, trantsizio horrek emisio balantzean planeta mailako hobekuntzarik ekarriko duen ez baitago argi.

3. Mugikortasunean aparkalekuei buruzko politikak duen eragina.

Lehendakariak, hizlaria aurkeztu ondoren, hitzaldiaren helburua informazio ekarpena egitea dela azaldu du, aparkalekuen inguruko ondorengo hausnarketa egiten laguntzeko xedez. Saio honetan hausnarketarako denbora nahikorik geratzen ez bada gai honi Kontseiluaren hurrengo saioan heltzeko konpromisoa hartu du.

LEBER enpresako aholkulariak azalpenak eman ondoren, Merkataria Federazioko ordezkariak, hiriko merkatarien sektorearen sentikortasuna ekarriz, ezinegona adierazi du aparkatzeko bigarren lerroaren inguruan dagoen zorrotasuna dela eta. LEBEReko ordezkariak zera azaldu du, bigarren lerroko tokia dagoenean, asfaltoari lekua kentzea dela zuzena, espaloiak zabalduz nahiz baterian aparkalekuak sortuz.

3. Hiritar norbanakoak legez behartuta dagoen luzetarako 6 m-ko dimentsio minimoa duen desgaituentzako aparkalekurik ezagutzen ez duela adierazi du. Aparkaleku Atalaren buruak erantzun du pixkanaka, lekuak berritu ahala, ari direla

el mayor problema que esto genera no es la defensa de la línea de costa sino que la afección que esto va a tener en todo el sistema de saneamiento. Están analizando con Aguas de Añarbe una búsqueda de soluciones para que el sistema continúe siendo operativo a futuro. Dado que la ciudad se encuentra mayormente construida sobre zona de marismas, el nivel de influencia del cambio climático en la ciudad dependerá de la cota que alcance el mar a futuro, calculándose una subida de 0,5 m. para el año 2100.

El Director de Medio Ambiente expone las principales actuaciones que se están llevando a cabo tanto en la lucha contra el cambio climático como para la adaptación al mismo. Entre otras cuestiones, se está incidiendo en la Economía Circular, y más en particular, en los residuos de demolición y construcción, residuos que anteriormente iban íntegramente a vertedero y en la actualidad se están reintegrando en la cadena de la construcción. Por otro lado, en los últimos años se han ido haciendo actuaciones, tal como la construcción de tanques de tormentas en distintos puntos de la ciudad, como prevención ante fenómenos extremos, los cuales está previsto se vayan a agudizar. En este sentido, hay una línea de trabajo con Azti-Tecnalia, quien está desarrollando el Plan de Adaptación al Cambio Climático, para analizar en qué medida se van agudizando los episodios extremos.

En referencia al impacto del actual modelo de movilidad en el cambio climático, el representante de la Federación Mercantil opina que el desarrollo del AVE junto con otras medidas como la de impulso del transporte público generará una reducción importante de emisiones. El Director de medio Ambiente considera muy difícil llegar a sustituir totalmente los vehículos de combustible fósil por vehículos eléctricos dado que ello requiere un consumo de recursos enorme por lo que no está claro que dicha transición lleve a una mejora en el balance de emisiones a nivel planetario.

3. Influencia de la política de aparcamiento en la Movilidad.

La Presidenta, tras presentar al ponente, explica que el objetivo de la ponencia es aportar información para la posterior reflexión sobre el tema de aparcamientos. En el caso de que en esta sesión no haya tiempo suficiente para dicha reflexión se compromete a abordar esta cuestión en la próxima sesión del Consejo.

Tras la exposición por parte del consultor de LEBER, el representante de la Federación Mercantil, haciéndose eco de la sensibilidad del sector comercial de la ciudad, manifiesta su malestar ante la inflexibilidad de la doble fila. El representante de LEBER explica que lo correcto es restar sitio al asfalto en los casos en que haya sitio para la doble fila, bien ampliando las aceras bien creando aparcamiento en batería.

aparkalekuak araura egokitzen eta azken hau bere osotasunean betetzea dutela azken helburu.

Cristina Eneako ordezkariak hitzaldiaren helburua zein izan den argi ikusten ez duela adierazi du eta bertaratutakoei gogorarazi die ondoko gaien inguruan hausnarketa egitea ezarri zela bilerarako helburu gisa: hirian zenbat auto onartzeko prest gauden, barne eta kanpo mugikortasunaren arteko harremana (turismoarekiko neurriak), pertsonen mugikortasuna eta salgaien mugikortasuna, egungo ereduaren kostuak (garraioa, istripuak...), etab. Bestalde, bere aburuz autoa pribatua da eta eremu publikoa pertsonentzako berreskuratzeak ez du denda eta jatetxeentzako berreskuratzea esan nahi.

Lehendakariak azaltzen du puntu honetarako proposatu zen helburua disuasio aparkalekuen inguruan minimoki eztabaidatzea izan zela eta, arrazoi hori dela eta, hizlariak hizpide izan dituen gaiak aurretik ukitzea merezi zuela pentsatu zen.

Mugikortasunaren inguruan dauden beharrei eta desiratzen den ereduari buruz erabakitzeo garrantziaren inguruan eztabaidatu da ondoren, guztia onargarria ez dela oinarri hartuz.

HELDUEN HITZAko ordezkariak Baionak duen disuasio parkingean inguruan balorazio positiboa egin ondoren LEBEReko ordezkariak azaldu du erreminta asko daudela autoari gudua irabazteko baina bakoitza zuzen erabili behar dela, nori zuzenduta dagoen eta zer lortu nahi den argi edukiz. Esaterako, disuasio parkingez eraturako eredu batek hirigunean lekua libre uzten badu ere, auto pribatu bidezko mugikortasunaren handitzea ekartzen du albo ondorio bezala. Donostiari dagokionean, hirian autoen fluxua disuasio parkingak sortuz gerarazi behar den aztertu beharko da.

Hiri inguruetan bizi diren familientzako auto bidezko mugikortasunaren gizarte kostuak askozaz handiagoak direla erantzen du. Izan ere, LEBERek egindako azterlan batean hirigunean bizi den familia batek 4000 euro gutxiago gastatzen ditu.

ELKARTUko ordezkariak Donostian ezarriko den eredu mugikortasun murriztua duen biztanleriaren beharrak kontutan izan daitezela eskatu du.

Irisgarritasun gaietarako berezko plan eta arauak badirela gogorarazten da.

Kalapiako ordezkariaren aburuz azpiegiturak aparkalekuen eraikuntzarekin finantzatzeko oso kritikoa bihur daitekeen hipoteka sortzen du. Bestalde, bizikletek mugikortasunean izan behar duten pisua kontutan har dadila aldarrikatu du. LEBEReko ordezkariak bizikleta mugikortasunaren hobekuntzarako aliatu handietako bat izan arren, gaur egun kudeatu beharreko zerbait bihurtu dela erantzun dio.

El representante ciudadano nº 3 expresa que no conoce ningún aparcamiento para discapacitados con dimensión mínima de 6 m. de largo, tratándose de algo exigido por ley. El Jefe de sección de Aparcamientos responde que están adaptando las plazas a norma, de modo paulatino y a medida que se van renovando, con el objetivo claro de llegar a cumplir la norma en su integridad.

El representante de Cristina Enea manifiesta no ver claro el objetivo de la exposición y recuerda a la asistencia que los objetivos que se habían planteado era realizar una reflexión sobre cuántos coches estamos dispuestos a aceptar en la ciudad, la relación entre movilidad interna y externa (pautas respecto al turismo), movilidad de personas y movilidad de mercancías, costos del actual modelo (transporte, accidentes...), etc. Mantiene, por otro lado, que el coche es privado y que la recuperación del espacio público para las personas no es recuperarlo para comercios y restaurantes.

La Presidenta explica que el objetivo propuesto para este punto era debatir mínimamente sobre aparcamientos disuasorios para lo cual se ha considerado conveniente abordar previamente los temas planteados por el ponente.

Sigue un debate sobre las distintas necesidades existentes en relación a la movilidad y la importancia de decidir el modelo deseado bajo la consideración de que todo no es aceptable.

Ante la valoración positiva realizada por la representante de HELDUEN HITZA sobre el modelo de parkings disuasorios existente en Baiona, el representante de LEBER explica que para ir ganando la batalla al coche existen muchas herramientas pero que cada una de ellas debe ser utilizada correctamente sabiendo a quien se quiere dirigir y qué se desea obtener. Por ejemplo, un modelo erigido sobre parkings disuasorios, si bien libera espacio en el centro, genera como efecto secundario un incremento en la movilidad mediante coche privado. En lo que se refiere a Donostia, se deberá analizar si es posible parar la entrada del flujo de vehículos en la ciudad mediante la creación de parkings disuasorios.

Añade que los costes sociales de la movilidad en coche son muy superiores para las familias que viven en el extrarradio. Así, en un estudio realizado por LEBER se concluyó que una familia que vive en el centro de la ciudad gasta 4000 euros menos.

La representante de ELKARTU solicita que en el modelo que se vaya a implantar en Donostia se tengan en cuenta las necesidades de la población con movilidad reducida.

Se recuerda que existen planes y normativas propias para los temas de accesibilidad.

Cristina Eneako ordezkariak uste du gastu handiagoa egin behar dela Diagnostikoan mugikortasunaren inguruko datuen eskurapenari dagokionean. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak urte batzuetan behin burutzen duen inkestatik ez dago hirirako daturik erazterik. Gainera, inkesta horietan auzoetako eguneroko mugikortasuna ez da islatzen. Beraz, Udalari eskatu dio Eusko Jaurlaritzari eska diezaiola inkestak analisisa sakontasun handiagoarekin egiteko aukera ematen duen ustiaketa eduki dezala.

PP taldearen ordezkariak, auto pribatuaren defendatzaile sutsu gisa, hizlariak azaldutako hainbat konturekin ados ez dagoela adierazi du eta erantsi du bere aburuz autorik gabeko hiri bat ez dela hiri. Ibilgailu pribatuak autonomia ematen dio pertsonari eta aberastasun sintoma ere bada. Hirian modu guztiak beharrezkoak direla uste du eta ekipamenduen hobekuntza egitea garrantzitsutzat jotzen du, azken finean, hiria gizartearen beharren atzetik diseinatu behar baita.

LEBEReko ordezkariak bizitasun gehien duten hiriak autoari sarrera eragozten zaion dentsitate handiko hiriguneak dauzkatenak direla erantzun du. Gizartearentzako beharrezkoa zer den definitu beharreko zerbait dela erantsi du, energia eta lurzoru kontsumoak kontutan izanik eta hiri barneko mugikortasunerako garraio publiko eraginkor baten apustua eginez.

PPko ordezkariaren iritziz, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea autoz iristen diren turisten %66ren etorrera mugatzea litzateke. LEBEReko ordezkariak erantzun dio horiexek direla, hain zuzen ere, erabaki beharreko kontuak.

3.Hiritar norbanakoa kexu da desgaituentzako aparkalekuen kokapen txarra dela eta. Aparkalekuen Atalaren Buruak azaldu du aurrekontuek aukera ematen duten neurrian aparkalekuak oinezkoen pasabideen ondoan kokatzen direla, arautegira egokitzea bilatuz.

Cristina Eneako ordezkariak ibilgailu pribatuaren murrizketaren ideia ibilgailu pribatuaren erabilera inteligentearen ideiarekin ordezkatu beharra dagoela adierazi du. Horrek esan nahi du ondoko hiru arloak kontutan izan behar direla: eskura dagoen espazioa, espazio publikoa pertsona ororentzako da publiko eta eskubide indibidualak ez dute eskubide kolektiboetan eraginik izan behar.

Merkatarien Federazioko ordezkariak Garberaren etorkizuneko zabaltzeak izan ditzakeen eraginen inguruan galdetu du.

Cristina Eneako ordezkariak hirigintza mugikortasunerako erabakigarria dela eta gaur egun erabilerak nahastea dela joera. Mugikortasunaren eta emisioen murrizketaren aldetik Garberaren

El representante de Kalapie expresa que el hecho de que las infraestructuras se financien mediante la creación de plazas de aparcamiento supone una hipoteca que resulta muy crítica. Por otro lado, reclama que se tome en consideración el peso que deben tener las bicicletas dentro de la movilidad a lo que el representante de LEBER replica que aún siendo la bicicleta una de las grandes aliadas en la mejora de la movilidad, hoy en día se ha convertido en algo que requiere ser gestionado.

El representante de Cristina Enea reclama un mayor gasto en el Diagnóstico para la obtención de datos sobre movilidad, dado que de la encuesta que plurianualmente realiza el Gobierno Vasco no es posible extrapolar datos para la ciudad. Además, en dichas encuestas no se refleja la movilidad de la vida cotidiana en los barrios. Solicita, por tanto, al Ayuntamiento que se traslade al Gobierno Vasco el interés de que la encuesta tenga una explotación que permita realizar un análisis en mayor profundidad.

El representante del grupo PP, en calidad de ferviente defensor del vehículo privado, expresa su discrepancia con muchos de los aspectos expuestos por el ponente y opina que una ciudad sin coches no es ciudad. Considera que el vehículo privado dota a las personas de autonomía personal y constituye un síntoma de riqueza. Opina que en la ciudad son necesarios todos los modos e incide en la necesidad de mejora de equipamientos, de modo que la ciudad se diseñe por detrás de las necesidades de la sociedad.

El representante de LEBER responde que las ciudades más vitales son las que tienen centros con gran densidad donde no se facilita la entrada del coche. Añade que es importante definir lo que es necesario teniendo en cuenta consumos de energía y de suelo y apostar por un transporte público efectivo para la movilidad dentro de la ciudad.

El representante del grupo PP opina que restringir el uso del vehículo privado significaría restringir la afluencia del 66% de turistas que llegan a la ciudad en coche, a lo que el representante de LEBER responde que estas son cuestiones ante las que se debe decidir.

El representante ciudadano nº 3 expresa su queja por la mala ubicación de las plazas para discapacitados. El Jefe de Sección de Aparcamientos explica que dentro de las posibilidades presupuestarias, y con afán de adaptarse a normativa, se van ubicando plazas de discapacitados cerca de los pasos de peatones.

El representante de Cristina Enea expone que se debe sustituir la idea de restricción del vehículo privado por la utilización inteligente del vehículo privado. Esto supone tener en cuenta las siguientes tres cuestiones: el espacio que hay disponible, el espacio público es público para

zabalkundeak nahiz Mercadonaren eta antzerako beste jarduera batzuk hiri inguruetan kokatzeak inolako zentzurik ez duela ere esan du.

LEBEReko ordezkariak erantsi du ezarpen mota hauek trafikoaren handitzea ekartzen badute ere ez dagoela ezer egiterik Plan Orokorrean jasota baldin badago.

Merkataritza Federazioko ordezkariak hauteskunde propagandarako erabiltzen diren ibilgailuek sortzen duten zarata dela eta kexa adierazi du. Bestalde, kezkatzen hasia da bizikletaren erabilera okerrak eraginda DVko Zuzendariari Eskutitzak atalean agertzen diren kexa ugariak direla eta.

4 Galde-eskaerak

Cristina Eneako ordezkariak Batzorde Iraunkorrek eratu duen gaien zerrenda eta lan plangintza zertan diren galdetu du.

Lehendakariak informazioa bidaltzeko konpromisoa hartu du.

Cristina Eneako ordezkariak Josu Benaitok aurkeztutako klima aldaketaren gaia iraila-urriko saioan gai zerrendan berriro eztabaidarako sar dadila eskatu du.

HELDUEN HITZAren ordezkariak adierazi du hiri autobusak aparkatzen dutenean ez direla espaloira ongi egokitzen eta horrek adinean nagusiak diren pertsonen irisgarritasun arazoak sortzen dizkiela. Dbuseko ordezkariak gidariaren maniobra oztopatzen duten distortsio elementuak gertatu ohi direla azaldu du.

HELDUEN HITZAren ordezkariak adierazi du Kursaal ondoan kokatuta dagoen bus geltokia bidegorritik oso gertu dagoela eta autobusaren zain daudenei bizikletak ongi ikustea eragozten diela egitate horrek. Gai honen inguruko gogorazien txartel bat ipin dadila eskatu du. Bestalde, Aieteko autobus geltokiak markesinarik ez duela gogorarazi du.

Dbuseko ordezkariak jakinarazi du ATTrekin erabiltzaile guztiak aginte edo mando unibertsala eduki dezaten lanean ari direla. Aginte honek hainbat prestazio edukitzeko aukera emango die, autobusen soinu audioaren aktibazioa, besteak beste.

ELKARTUko ordezkariak hiriko erreserbatutako lekuen kopurua jakin nahi du eta baita dauden lekuek indarrean dagoen arautegia betetzen ote duten ere.

Bilera amaitu da.

todas las personas y los derechos individuales de las personas no deben afectar los derechos colectivos.

El representante de la Federación Mercantil pregunta sobre las implicaciones que puede tener la posible futura ampliación de Garbera.

El representante de Cristina Enea responde que el urbanismo es determinante para la movilidad y que la tendencia actual es hacia la mistura de usos. Añade que desde el punto de vista de la movilidad y de la reducción de emisiones no tiene ningún sentido la ampliación de Garbera y la ubicación de Mercadona y otras actividades semejantes en la periferia.

El representante de LEBER añade que si bien este tipo de implantaciones generan un incremento en el tráfico no cabe hacer nada si está recogido en el Plan General.

El representante de la Federación Mercantil expresa su queja por el ruido producido por los vehículos utilizados para la propaganda electoral. Por otro lado, se empieza a preocupar por las abundantes quejas sobre el mal uso de la bicicleta en la sección de Cartas al Director del DV.

4 Ruegos y preguntas

El representante de Cristina Enea inquiriere sobre el listado de temas y plan de trabajo elaborado por la Comisión Permanente.

La Presidenta se compromete a enviar la información.

El representante de Cristina Enea solicita que en septiembre-octubre se vuelva a incluir para debate la temática del cambio climático presentada por Josu Benaito.

La representante de HELDUEN HITZA manifiesta que los autobuses urbanos no se ajustan bien a la acera cuando aparcan lo cual plantea problemas de accesibilidad a las personas mayores. El representante de Dbus explica que suelen darse elementos distorsionadores que dificultan la maniobra de la persona conductora.

La representante de HELDUEN HITZA explica que la parada de autobús ubicada junto al Kursaal se encuentra muy próxima al bidegorri dificultando la visión de los ciclistas por parte de quienes están esperando al autobús. Solicita se coloque un cartel alertando de la cuestión. Por otro lado, recuerda que la parada del autobús en Aiete carece de marquesina.

El representante de Dbus informa que están trabajando con ATT para que todos los usuarios puedan disponer de un mando universal que permitirá la obtención de distintas prestaciones, tal como la activación del audio sonoro de autobuses.

El representante de ELKARTU solicita conocer el nº de plazas reservadas en la ciudad y si éstas cumplen con la

normativa vigente

Finaliza la reunión.